



Hauteskundeak igande honetan

Koronabirusak eragindako pandemiaren eraginez, ez ohiko egoera biziko dute botu-emaileek eta hautes-mahaletako kideek. / 2-4



Aukera zabala udan, sagardoa ardatz hartuta

"Sagardoak elkartzen gaitu" ekimenaren lehen egitasmoa aurkeztu dute Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek eta Bertsozale Elkartek / 16



Joseba & Bakartxo konpainiaren erakustaldia San Juan jaietan, eurek egindako bideoekin / 8



Imanol Ansa Galarretako txapelketako finala jokatzeko partida bakarrera dago / 12




Igeriketaren erronkak Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT klubeko kidearen eskutik / 14



Herriz herriko emaitzak Aiurri.eus webgunean, igandean bertan

Albisteak | Argazki-bildumak | Bideoak



uztailak 12 igandea | www.aiurri.eus

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



2016ko emaitzak

ANDOAIN		
Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	1.880	27,90
EAJ-PNV	1.858	27,57
Podemos	1.203	17,85
PSE-EE	1.077	15,98
PP	406	6,02
C'S	136	2,02
Abstentzioa		40,90

URNIETA		
Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	1.031	37,63
EH Bildu	704	25,69
Podemos	408	14,89
PSE-EE	335	12,23
PP	149	5,44
C'S	45	1,64
Abstentzioa		42,08

GIPUZKOA		
Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	117.260	34,30
EH Bildu	98.663	28,86
Podemos	48.800	14,28
PSE-EE	40.425	11,83
PP	24.766	7,24
C'S	5.730	1,68
PACMA	2.535	0,74
Abstentzioa		40,62

EUSKADI		
Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	398.168	37,60
EH Bildu	225.172	21,26
Podemos	157.334	14,86
PSE-EE	126.420	11,94
PP	107.771	10,18
C'S	21.477	2,03
PACMA	8.589	0,81
Abstentzioa		39,98



EH Bilduren ekitaldia Juanita Alkain plazan. EHB



Eskualdeko EAJren ekitaldia Lasarte-Orian. EAJ



PSE-EEren ekitaldia Andoain. AIURRI

Botoa bereganatzeko azken txanpa

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK | UZTAILAK 12 Alderdiak botoa erakartzeko ahaleginean egon dira eskualdean, azken egunetan. Bereziki, EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiak. Ekitaldiak antolatu dituzte, kanpainaren azken txanpan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Larunbat eguerdian EH Bilduko hautagai diren Arkaitz Rodriguezek eta Oihana Etxebarrietak mitina eskaini zuten Juanita Alkain plazan. Etxebarrietak krisiak eragindako ondorioak gogora ekarri zituen, besteak beste zaintzan agerian geratu diren gabeziak nabarmenduz. Rodriguezek alternatibaren beharraz hitz egin zuen. EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien arteko gobernua alboan uzteko garaia iritsi dela adierazi zuen, "egun-go gobernua ez baita ezkerrekoa

ezta soberanista ere". Jeltzaleen korrupzio kasu guztiak gogora ekarri zituen, Andoaingo mitinean. Benetako partida igandean jokatzen denez, botoa ematea garrantzia handikoa zela adierazi zuen Rodriguezek.

EAJ-PNVren mitina Lasarte-Orian

Gipuzkoa mailako mitina antolatu zuen EAJ-PNVk Lasarte-Orian, astelehen arratsaldean. Hautagaien artean bertan izan ziren Markel Olano, Saioa Banderes edota EGiko kide den Markel Aranburu.

"Jazarpen- eta eraiste-estrategiak" baztertzeko eskatu zion EH Bilduri, Gipuzkoako jeltzaleen buru den Joseba Egibarrek. Elkarlan politikorako eta eraikuntza sozialeko egiturazko akordioetara pasatzeko ordua dela adierazi zuen, "Euskadik herri gisa erantzun fidagarria eman diezaion erronka sanitario, ekonomiko eta sozialari". Hori gauzatzeko, "lankidetzaren politikaren akordioek gure herriaren borondate politikaren adierazpenen arteko errespetua" beharrezkoa zela nabarmendu zuen.

PSE-EEren mitina Goikoplazan

Eneko Andueza Gipuzkoako sozialisten buruzagiak mitina eskaini zuen Mainer Lainez Andoaingo alkatearekin batera. Lainezek Andoain aldaketa egon zen bezalaxe, Jaurilaritzan ere aldaketa eman daitekeela defendatu zuen. Anduezak bere aldetik PSE-EEren alde soziala lehenetsi zuen, Espainiako Gobernu eta Koronabirusak eragindako krisian hartutako neurriak adibidetzat hartuta. Ageraldian Gipuzkoako hautagaiak eta Andoaingo Udal ordezkariak elkartu ziren.

Elkarrekin Podemos

Astelehen eguerdian Euskadiko hautagaiek Espainiako buruzagien babesa jaso zuten, Bilboko Euskaldunaren egindako ekitaldi nagusian. Iuko Alberto Garzon eta Podemoseko Pablo Iglesiasek ezkerreko alderdien arteko koalizioa osatzeko apustuaren alde egin zuten. Aurreko astean Montero Berdintasun ministroa Donostian izan zen.



Boto-zenbaketa 2015eko abenduko hauteskundeetan. AIURRI

Argibideak botoa emateko garaian

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK | UZTAILAK 12 Urnietarrek udaletxe atzeko Udal pilotalekura joan beharko dute botoa ematera, eta andoaindarrek Allurralde kiroldegira eta Arrate pilotalekura

Jon Ander Ubeda URNIETA

Arrazoi ezberdinak tarteko, badira posta bidezko botoa emateko aukera baliatu dutenak. Baina oraingoz gutxiengo dira. Gehiengo zabalak igandean eman behar du botoa. Aiurriko eskaerari erantzunez, hauexek hainbat egoeren aurrean Urnietako Udalak eskaini dituen argibideak:

Hautesleku berria

Lekaion eman izan da botoa azken deialdietan. Oraingoa urnietarrek metro gutxira dagoen Udal pilotalekura hurbildu behar-

ko dute. Euskadi osoan botoa emateko espazio eremu zabal eta handiak lehenetsi dira, prebentzio modura. Frontoia zabal da, altuera handikoa eta pertsonen arteko segurtasun distantzia bermatzea ahalbidetzen duen instalakuntza. Irisgarritasunaren ikuspegitik, gainera, baldintza guztiak betetzen ditu.

Pilaketak ordu jakinetan

Hauteslekura eguerdi aldera hurbiltzen da botu-emaile kopuru handiena, zehazki 12:00ak eta 14:00ak bitarteko tartean.

Pilaketak ekiditeko, ordu horiek saihesteko aholkua luzatu dute. Udalak ordu horietatik kanpo botoa emateko gomendioa luzatu du, gehienez ere 120 egon daitezkeelako batera.

Jendetza pilatuz gero, ilaran zain egon beharko da. Botoa ematerako garaian gutxieneko distantziak mantentzea ezinbestekoa izango baita.

Zaintzarako langile kopurua

Aurreko hauteskundeetan ohikoa dena baino langile kopuru handiagoa jarriko du Udalak lanean.

Sarbideak kontrolatzeko eta botoa ematen ari direnei laguntzeko bizpahiru langile gehiago arituko direla adierazi diote Aiurri astekariari.

Adinean gora doazen botu-emaileak

Covid 19-ak baldintzatuta segurtasun neurri bereziak hartuko diren arren, adineko pertsonen laguntzaile batekin botoa ematera joateko aukera izango dute. Ezintasun bat dutenen pertsonen kasuan ere, lagunduko dion pertsona batekin hurbil daitezke.

Botoak eta sobreak hauteslekuan

Gipuzkoarrek 14 hautes-zerrenda ezberdinen artean botoa emateko aukera izango dute. Alderdi horiek guztiek ez dute botoa eta sobrea etxeraino bidaltzeko ahalmen ekonomikoa. Beraz, botu-emaileak hauteslekuan aurki dezake gogoko duen botoa eta sobrea. Udalek botoa etxetik prestatuta eramateko gomendadua luzatu duten arren, behar adina sobra eta boto egongo direla adierazi dute.

Botoa emateko denbora

Hain egoera berezian, arin ibiltzeko deia luzatu dute. Kirol instalakuntzatan ahalik eta denbora gutxien igarotzea eta kontaktuak ahalik eta murriztenak izatea baita helburu nagusia.

12:00AK ETA 14:00AK ARTEAN BOTU-EMAILEEN PILAKETAK SAIHESTEKO DEIA LUZATU DU UDALAK

Mahaikideen segurtasuna

Mahaikideen segurtasuna bermatzeko haxe da Urnietako Udalak pertsona bakoitzari eskainiko dion "Segurtasun Kit-a":

- 3 maskara kirurgiko mahaikide bakoitzarentzat, administrazioaren ordezkaria barne, hauteskunde-egunean erabiltzeko.
- FPP2 maskara 1 mahaikide bakoitzarentzat, administrazioaren ordezkaria barne, hala badagokio, boto-zenbaketan soilik erabili beharrekoa.
- Nitrolozko eskularru pare bat mahaikide bakoitzarentzat, administrazioaren ordezkaria barne, hala badagokio, boto-zenbaketan bakarrik erabiltzeko.
- 2 poltsa hermetiko aurrez aipaturako osasun-materiala biltzeko.
- Zabor poltsa bat, poltsa hermetikoak sartzeko.

Lehentasuna

- Ilarak sortuz gero, lehentasuna emango zaie 65 urtetik gorako pertsonen edo haurdun dauden emakumeen, hauteslekuan ahalik eta denbora gutxien pasa dezaten.

GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI
Lehendakari hautagaia
<http://mirengorrotxategi.eus>



PACMA, Recortes Cero, Por Un Mundo Mas Justo eta Aulki Zuriak ordezkartza apaleko alderdiak dira. AIURRI

Eskaintza ideologiko zabala

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK | UZTAILAK 12 Etxetik sobrea eta papertxoa ez daraman herritarrek hamalau proposamen ezberdin topatuko ditu botoa aukeratzeko kabinatxoan. Eskaintza politikoa eta ideologikoa oso zabala da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Igande honetan botoaren gehiengo EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos, PP+C's eta VOX alderdietara joango den arren, beste zortzi alderdi gehiago aurkezten dira. Irismen handia duten alderdien asmoak ezagunak zaizkio uztailaren 12an bozkatzeko asmoa duen botuemaileari. Ezagutu ditzagun hedabideen arreta apala jaso duten gainerako alderdiak.

Equo Berdeak
@EquoBerdeak

Equo Espainia mailako alderdiaren adarra da, gutxi arte Podemos alderdiarekin lankidetzan hauteskunde ezberdinetan aurkeztu zena. Lopez Uralde zuten hautagai nagusia, eta hura Podemos alderdian geratu zen. Hauteskundeek begira Podemos eta Mas Pais alderdietatik urrundu eta

Euskadirako hautes-zerrendak aurkeztu dituzte. Gipuzkoako hautagaia Edurne Baranda da, eta Lehendakariagaia berriz Bizkaiko zerrendaburu Joserra Becerra. Podemos eta PACMA alderdiekin lehian ibiliko dira, panorama politikoan nabarmentzeko. Hedabideen artean arreta handiena lortzen ari den alderdia da. Gainerako alderdi txikiak ez bezala, ETBko debateetan egotea lortu dute.

PACMA
@PartidoPACMA

Aski ezaguna da alderdi animalista, eta ordezkartzarik gabe geratzen diren alderdien artean boto gehien eskuratzen duena izaten da estatu mailan. D'hondt legeak gehien kaltetutako alderdia da. Euskadin, aurreko hauteskundeetan, 8.550 boto eskuratu zituen. Hauteskundeetan

egotea animalien eta ingurumenaren alde aritzeko beste erraminta bat da, alderdiarentzat. Ez gehiago. Izan ere, sareetan eta webgunean ia ez da kanpainari buruzko azalpenik egiten. Egunerokoan murgilduta daude, hots, animalien aldeko defentsa argian.

Aulki Zuriak
@escanosenblanco

Estatu mailako mugimendua bada ere, Buruntzaldean ordezkartza egonkorra dute. Gipuzkoako hautagaia, esaterako, Daniel Lizarralde urnietarra da. Iazko Udal hauteskundeetan hautes-zerrendak aurkeztu zituzten Urnietan eta Usurbilen. Abstentzioaren eta boto zuriaren tarte horretan kokatzen dira, eta botoa protesta ekintza modura ulertzen dute. Botoa sustatzen dute ordezkartza lortze-

ko. Eta behin ordezkartza lortuta, karguari muzin egingo diotela adierazten dute. Kanpainan honetan aulki hutsak erabili dituzte, eta hautagaiek bideo bidez zin egin dute ez dutela ez kargurik hartuko, ezta ordain-saririk onartuko ere.

Partido Libertario
@partidolibertad

Euskara, galegoa eta gaztelera maila berean erabiltzen ari dira kanpaina honetan. Norberaren askatasuna lehenesten dute, liberalismoa muturreraino defendatuz. Lan merkatua malgutzea eskatzen dute, eta gutxieneko soldataren aurka agertzen dira. Illa Osasun ministroa erabili dute afitxatan, gobernuarekiko desadostasuna agertzeko. Osasun zerbitzu unibertsala defendatzen dute, hori bai, "pribatua, osasuntxeke ereduaren bidez". Hezkuntzari dagokionez, hezkuntza eredu ororen alde agertzen dira, baita etxean irakatsi ahal izateko ere. Enpresei, alderdi politikoei eta elizari dirulaguntza politikoak ematearen aurka ageri dira. Gipuzkoako zerrendaburua Javier Barrenetxea da.

PUM+J
@mundo_mas_justo

Gaztelania nagusi da, komunikazioetan. "Mundu mailan dagoen pobreziaarekin amaitzea erabaki politikoa da", horixe dute goiburu nagusietakoa. Armagintzara bideratzen den aurrekontua osasun arloko hobekuntzara bideratzea aldarrikatzen ari dira. Kanpainen zehar bizikletaren aldeko apustua egin dute, eta hitzordu gehienetan euren afitxa daramaten bizikletak ikus daitezke. Jesus Barcina Arabako zerrendaburua da, eta era berean Lehendakartzarako hautagaia.

Recortes Cero
@RecortesCero

"Pandemia ekonomikoari aurre egitea aberastasuna birbanatzea da" irakur daiteke Euskadira begira argitaratu zuten manifestuan: "Pandemiari aurre egiteko, lehenbizi osasuna eta bizitza jarri behar ditugu. Pertsona bakoitzaren osasuna, baina baita osasun publikoaren eta osasun unibertsalaren defentsa ere, pandemiari irabaztea prebenitzea baita". Bost neurri proposatu dituzte, hauteskunde-kanpaina: neurri hauek jarri ditugu Eusko Legebiltzarrera: Osasun Publikoa

Babesteko Legea; pentsioak Konstituzioan Blindatzeko proposamena aurkezteko Diputatuen Kongresuan; Euskadiko berrindustrializazio-plan bat abiaraztea; Ingurumen Lege Integrala; Hautesle-batzarrekin udalekotza eta herritarren parte-hartzea sustatzea.

UCDE
@UCDE_politica

Espainiarrak eta elizkoiak dira. Abortoaren eta eutanasiaren aurka agertzen dira. Euren ustean partitokrazia batean bizi gara, eta egoera horri aurre egin behar zaio. Euskadin abertzalek eta sozialistek osaturiko gobernuak kalte handia eragin du. Besteak beste, "separatismoa, klientelismo politikoa, gaztelaniaren bazterkeria, korrupzio etikoa eta pertsonala". Hezkuntza ideologizatuta dagoela uste dute. 2016ko abenduan sortu zen alderdi politiko modura. Alderdiko presidentea Eulogio Gardezabal Uriarte basauriarra da, Irunen bizi dena. Zirujaua da, ogibidez. Euskarari eskaini dioten tarte oso apala da, goiburu jakin batzuetan soilik.


LxE
@LxE_Libres

Euskadin sortutako alderdi berria da, eta Gipuzkoako buruzagia ezaguna da: Chema Herzog PPko ordezkari ohia. Hauteskudeetara aurkeztu duten programan loturatik eta menpekotasunik gabeko alderdia dela nabarmentzen dute: "LxE-EaLek ez du zorrik inorekin, ez dugu bidesaririk ordaindu behar, ezta mesederik itzuli behar ere. Erabat askeak gara. Pertsonen ongizatea alderdiaren interesen aurretik jartzen dugu. Ez gara irizpide ideologikorik baldintzatuta egongo, ez dugu politikarik egingo biztanleriaren zati batentzat". Meritokrazia defendatzen dute: "Osasun, hezkuntza, ekonomia... izen handiko espezialistek markatutako politiketan oinarritzea nahi dugu. Meritokrazia nahi dugu, ez lagunkeria". Hauteskunde-programa elebietan aurkeztu dute.

IGANDE HONETARAKO HAMALAU HAUTAGAITZA EZBERDIN AURKEZTU DIRA GIPUZKOAN



Atal bereziak webgunean



Ixa websaila



Erremontea



Iragana eta oraina irudi bidez



San Juan jaiak



Kaletxikiko jaiak



Gazte festak



Euskaraldia



Eskualdeko musika taldeak



Errezetak

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

KALETXIKITARRON JAI BATZORDEA ANDOAIN

Kaletxikitarron Jai Batzordearen balorazioa

"Maiatzaren amaieran jakin genuenean Ontza Elkartek bertan behera utziko zuela aurtengo auzoko jaien antolaketa, segituan hasi ginen kaletxikitarron jaiak izango ziren egitarau xumea prestatzen, beti ere kontuan izanda bizi dugun egoera eta ezin genituela alde batera utzi segurtasun- eta osasun-neurriak.

Antolaketa-lanekin hasi baino lehen, azterketa bat egin genuen jakiteko nola gauza genitzakeen festak neurri guztiak betez. Behin azterketa hau egin ondoren, eta ikusirik La Salle Berrozpeko patioarekin eta Berrozpeko Kaperarekin kontatzen genuela, aurrera egitea erabaki genuen. Garbi genuen urteroko sagardo txapelketa, txosna-gunea eta hainbat ekitaldi ezin izango genituela antolatu,

baina posible ikusten genuen, konfinamendu garaian lortu dugun auzo-giroa eta auzo-elkartasunetik abiatuta, Kaletxikiko alaitasuna eta zoriontasuna lau haizetara zabaltzea. Santa Krutz jaiak oso arrakastatsuak izan ziren, izugarrizko lana egin zuten dena online egiteko, eta eredu moduan hartu genituen. Baina egoera desberdinean ginenez, momentu honetan zerbait gehiago egin genezakeela ikusten genuen.

Beharrezkotzat jotzen genuen, gainera, kulturak eta herriko hainbat komertziok eta taldek merezi eta behar zuten babesa eta bultzada ematea. Ildo horretatik, herriko merkatariek bizi duten egoera dela-eta, ez dugu beraiegana jo diru eske, ez baikenuen ikusten bizi duten egoeran diru eske joan behar genuenik;

iruditzen zitzaigun guk gerturatu behar genuela beraiegana gastua egitera. Hau horrela, ez ohikoa den neurri batzuk hartzera behartuta egon gara: jaien barruan antolatuta zeuden ekitaldi batzuetan parte hartzeko edo hauek ikustera joateko jendeak sarrera sinboliko bat ordaindu behar izan du, jaiak autofinantzatuak izan baitira sarrera hauen eta auzotarren artean.

Halaber, jaiak aprobetxatu ditugu omenaldia egiteko pandemia garai honetan lehen lerroan egon diren eta dauden langileei, pregoia San Juan Bataiatzailea aitona-amonen egoitzako langileen ardura izan baitzen eta larunbat goizean omenaldi txiki bat egin baikenien. Hau dena ezingo litzateke aurrera eraman auzo osoaren eta herriko talde

ezberdinen laguntzarik eta inplikaziorik gabe. Nolanahi ere, jai hauek antolatzeke orduan ulertzen ez ditugun hainbat egoera jazo dira eta tristea bezain harrigarria izan da hainbat eragilek eta taldek eragin duten presioa. Laguntzarik eskaini ez eta oztopo ugari gainditu behar izan ditugu. Aitzitik, hasieratik lagundu eta euren babesa eskaini diguten guztiei eskertu nahi diegu, izan duten jarrera baikor eta aurrerakoia egatik. Denborak erakutsi du ilusioz, gogoz eta irudimenarekin, eta, aldi berean, zuhurtziaz eta erantzukizunez, neurri guztiak betetzea posible dela eta auzoak eta herria bizi-bizirik eduki daitezkeela! Esker bereziak eman nahi dizkiegu Aiurriari, bere babesagatik eta jaiak egindako jarraipenagatik; Andoaingo Bertso Eskolari

(Ion eta Beñat Beloki, Jon eta Aritz Eskudero, Unai Ormaetxea, Xabier Aranzeta eta gai-jartzaile lanetan aritu zen Xabier Ariznabarreta); Irunberri elkarteari; Estitxu Sistiaga, Maider Zapirain eta Mikel Urdagarini; Andoaingo Olagin Txistulari elkarteari; Nemux-i; Montai enpresari, aulki eta mahaiak uzteagatik; Ontza elkarte danborradako danborrak eta kupelak uzteagatik, eta, nola ez, oso bereziki, La Salle Berrozpeko komunitateari eta Berrozpeko Jesusen Alabei, beraiek gabe hau dena ez bailitzateke posible izango. Ezin dugu aipatu gabe utzi kaletxikitar guztiek eta bertaratu diren herritarrek osasun- eta segurtasun-neurriak errespetatzeko egin duten ahalegina eta erakutsi duten konpromisoa. Datorren urtean ohiko jai-egitaraura itzuliko garelaokan: Gora Kaletxiki! Gora Ama Kandida!".

**andoainDARRA**
euskaraz**AIURRI**
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

POSTONTZIA

EGAPE IKASTOLAKO IRAKASLE TALDEA URNIETA

Bakarrrik utzi gaituzte

Pixkanaka birusa hurbildu zitzaigun. Konturatzerako gainean genuen, munduan zabaldua zegoen. Horrela, martxoaren 14an mota guztietako negozioak eta... eskolak ere itxi egin ziren. Birusak gure etxeko pareten artean sartzen behartu gintuen.

Telelanean aritu behar izan genuen, mundu ezezagun bat irakasle askorentzat. Errekurto teknologiko eta ekonomiko pertsonalak erabiliaz, gure lana ahalik eta hobekien egin ahal izateko dena eman genuen: gure ikasleen behar akademikoak betetzeko, beraiekin eta haien familiekin kontaktua mantentzeko, teknologiak ezagutzeko, haien zalantzak argitzeko eta urduritasuna lasaitzeko. Eta gaindituta sentitu gara guztiok, gu eta gure ikastolako familiak.

Esfortzuak handiak izan dira: gure txapeldunenak

(ikasleak), familienak, irakasleenak. Nekatuta gaude, baina bere laguntza eta ulerkortasuna eskaini dizkigutenei edota gure eskuetan ikastolan erabiltzen ditugun material didaktikoa jarri dituztenei eskertuak ere bagaude.

Prozesu luze honetan Hezkuntza Departamentuaren falta izugarri sumatu dugu.

Egoera latz honen aurrean Hezkuntza Departamentutik, pandemiaren aurrean jarraitu beharreko protokoloa gogoz espero genuen. Ekainaren 25ean iritsi zen.

Jokabide zehatzak eta neurri garbiak espero genituen, baina orokorkeria gehiegi topatu

"PROZESU HONETAN HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN FALTA IZUGARRI SUMATU DUGU"

genituen. Segurtasun distantzia mantentzeko gomendatzen digu, baina hori baliorik gabe gelditzen da musukoak erabiltzen badira. Adin txikiko ikasleak (2. maila artekoak) “Bizikidetza-talde egonkorrak” bezala aurkezten digute eta hauek beste talde batekoekin harremanik ez badute izaten, musukoaren erabilera eta distantzia mantentzea ez dira derrigorrezkoak. Ume hauek kurtso bukaera arte ez dira ikastolatik aterako? Bere familia-kideekin ez dute harremanik izango? Haien gurasoek ez dute lagunekin edo lankideekin harremanik izango? Goizero ikasleak bere “Bizikidetza-talde egonkor”era itzuliko dira eta ikastetxean ondo zaindu beharko dugu beste taldekoekin harreman handirik ez izatea, nahiz eta gero parkean edo terraza batean elkartu.

Protokoloak ikastetxeei Ikastetxearen Urteko Planean jasota geldituko diren COVID-19aren aurrean Jarduteko

Estrategiak ezartzeko eskatzen die. Modu berean, “COVID-19ren aurrean, Laneko arriskuen prebentziorako neurriak” dokumentuan oinarritutako Kontingentzia Plan bat ere osatzeko eskatzen die.

Oso serio hartu dugu lan hori, gure esfortzuarekin eskatutako plana osatu dugu. Gerta daitezkeenak aurreikusten saiatu gara eta nola egingo diegun aurre ere pentsatu dugu.

Baina lan hori guztia egin ondoren, martxan jartzeko baliabide ekonomikoak, materialak eta pertsonalak beharko ditugula agerian geratuko da. Segurtasun distantzia mantentzeak ikastalde gehiago sortzea eskatuko duelako. Hidrogelak

"EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE LAN BIKAINA EGITEN DUGUNOI BAKARRIK UTZ GAITUZTE"

eta musukoak erabiltzea gastu extra izango delako ikastetxeentzat, eta ez daude diruz gainezka. Toki eta material desberdinen higienea areagotzeak produktu bereziak eta giza baliabide gehiago eskatzen dituelako. Teknologien erabilera areagotuko da, arazo ugari izango ditugu, noski, eta IKT arduradunik ez dugu...

Behar ditugun errekurtsuak Hezkuntzari eskatuko dizkiogu, itxaropen handirik gabe egia esanda. Zergatik? Protokoloa bidali baino egun batzuk lehenago hurrengo ikasturterako irakasleen murrizketa izango dugula adierazi baitzigun. Hori gutxi balitz, Lekualdatze Lehiaketa dela eta, irakasleen arteko mugimendu ugari egongo da.

Haserre gaude, haserre, goibel eta suminduta. Erakundeek huts egin digute, bakarrrik utzi gaituzte. Euskal Eskola publikoaren alde lan bikaina egiten dugunok bakar-bakarrrik utz gaituzte.

POSTONTZIA

JOSE ANTONIO BAENA SERRANO GURUTZE GORRIA - ANDOAIN

Eskerrik asko

Normaltasunera itzultzen ari garen honetan, gure egunerokotasuna halabeharrez aldatu eta etxean sartuta eman ditugun ordu luzeen ondoren, Andoaingo Gurutze Gorritik eskerrak eman nahi ditugu. Herritarrek etxeko leihoak ireki dizkigute, berezi sentiarazi gaituzte, osasun langile guztioi eskainitako txalo zaparradei esker.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, baita ere, euren lanari esker geldyadi hau posible egin duten langile guztiei, neurri handiago edo txikiagoan horrenbeste kalte eragiten ari den gaixotasunari aurre

egiteko borroka egin dutenei.

Eskerrik asko bestean bizimodua errazago egiteko zuen burua arriskuan jarri duzuenoi... COVID19 taldearen antolakuntzapean aritu zareten bolondresei, lehendik ere bazeuden bolondresekin batera arituz, etxetik atera ezinik zeudenei laguntzea ahalbidetu duten guztiei; behar zuen orori elikagai edo sendagaiak etxeraino eraman dizkienei...

Eskerrik asko supermerkatuek oparitutako premiazko elikagaiak egoera zailean daudenetzat garraiatu, antolatu eta banatu dituztenei... Eskerrik asko urtebetetze eguna

gertukoekin ospatzerik ez zutenei berezi sentitu arazteko ahalegina egin eta euren denbora eskaini dutenei.

Andoaingo Gurutze Gorriak, lehen bezala orain, herri honetako bizimoduaren parte izan nahi izan du. Batzuetan isilean, beste batzuetan, azken asteotan esaterako, askoz ere modu agerikoagoan. Edonola ere, eskerrik asko Andoaingo herriari, asanblada honen alderik gizatiena azaleratzeagatik.

ESKERRIK ASKO ANDOINGO HERRIARI, ALDERIK GIZATIENA AZALERATZEAGATIK

KOMUNITATEA

ONDARRETA IKASTETXEA ANDOAIN

Bizitza bat, eskola bat

Bizitza bat, eskola bat. Horrela defini liteke Ane Olazabal, Josune Vazquez eta Eulali Etxeberrriaren bizitza Ondarreta ikastetxean.

Eulali pasa den abenduan jubilatatu zen eta Josune eta Anek berriz ikasturtea amaitzearekin batera hartu dute merezitako erretiroa.

Ondarreta ikastetxeko haur hezkuntza hustu da andereñoz ikasturte honetan.

Izan ere, kolpetik eta urte berean "betiko" hiru irakasle jubilatatu dira ikastetxean bizitza oso bat igaro eta gero.

Ane Olazabal andoaindarrak 35 urte igaro ditu ikastetxean. Haur hezkuntzako irakasle izatearekin batera,

zuzendaritza taldean urte askotan aritu da. Ikastetxeak urte guzti hauetan izan dituen eraikuntza ezberdinak ezagutu ditu Anek.

Josune Vazquez Donostiko Amara auzoko irakasleak bere irakasle bizitzako azken 25 urteak pasa ditu lanean anbulategi atzeko eraikinean.

Eulali hernaniarra berriz, 36 urtetan zehar aritu da lanean Andoaingo ikastetxe publikoan eta eskolako garai asko eta ezberdinak bizi izan ditu, Anerekin batera.

Hainbeste urte lanean pasa eta gero, gozatu merezitako erretiroa!

Milesker Ondarreta ikastetxeari emandako guztiagatik!

Saio bikaina jaietan, baliabide murriztekin

Bakartxo eta Josebaren dantza eskolak salbuespen egoeran ospatutako San Jaietan parte hartu zuen taldeetakoa izan zen. Erakustaldi ederra emanda, gainera. Txalotzekoa da, gainera, bideoen ekoizpenaz arduratu zirela ere

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Udalak ekainaren 23an eta 24an internet bidez zabalduetako ospakizun digitalaren protagonistetakoa izan zen Bakartxo Arabaolaza eta Joseba Pagolaren dantza eskola. Herriko kultur talde guztien artetik euren saioa grabatu eta ekoiztu zuen bakarra izan zen. Euren baliabide propioekin gainera, inoren finantziatorik gabe.

Ekainaren 24ko emanaldiaren azken zatian ikusi liteke ikuskizuna, Udalak Youtuben eskegi duen bideoan. "Birusa musikarekin eta dantzarekin akabatuko dugu" lelopean, ia ordu erdia irauten duen ikuskizunean zehar, honako dantzariak parte hartu zuten: Bakartxo eta Joseba tangoa eta milonga erakustaldia eginez; eskolako haur eta gazteak erritmo urbanoko dantza garaikidea eskainiz; Mikel Alvarado eta Marta Oteiza salsa saioa eskaintzen, eta, Marta Oteiza eta Ibane Amigot Hip-hop eta Afrohouse doinuaren erritmora dantza eginez.

Andoaingo leku desberdinetan grabatu zituzten dantza saioak, Goikoplazan, Unanibia zubian, Nafarroa plazan, eta baita Ama Kandida etorbidean dagoen dantza eskolako egoitzan. Haur eta gazteen dantza saioak, berriz, nork bere etxean grabatutako piezekin osatu zituzten.

Euren kabuz eginiko ekoizpen landua

Bakartxo Arabaolazak jaietarako egindako lanaren xehetasunak eskaini ditu. "Osasun krisialdia zela-eta, eskola itxi behar izan genuen martxoan, eta geroztik irakasleok zein ikasleek geure arteko harremanak etenda geneuzkan. Hortaz, oso zaila geneukan Udalak Ondarretako jolas lekuan prestatutako grabazioetan parte hartzea, horrek aurrez entseguak egitea eskatuko bailiguke. Baina bestalde,



Ione Arizala, Marta Oteiza eta Bakartxo Arabaolaza. San Juan jaiei begira dantza eskolaren ikuskizunaren antolaketan ibili diren hiru dira. AIURRI

"JOSEBA PAGOLA ETA MARTA OTEIZA IZAN DIRA DANTZA SAIOEN EKOIZLEAK ETA ARDURADUNAK"

San Juan jaiei begira ezer ez egiteak ere ez gintuen batere konbentzitzen, eta hortaz, geure kabuz ekitea erabaki genuen".

Koronabirusa iritsi bitarte, Bakartxo eta Josebaren eskolak San Juan jaietan dantza estilo anitzez osatutako ikuskizun dotore eta maila handikoa eskaini ohi zuen Goikoplazan.

Urtez urte makina bat ikusle erakarri izan dituen ekitaldia da, eta gauzak horrela, aurtan ez zuten hutsik egin nahi izan.

Baliabide murriztak, emaitza bikaina

Muntaia osatzerakoan oso birtarteko murriztekin jokatu dutela aitortu du Arabaolazak: "Lagun bati bideo kamera on bat eskatu ondoren, Joseba Pagola eta Marta Oteiza irakasleak aritu dira grabazioak egiten;

"HERRIKIDE ASKOK ESKAINI DUGUN IKUSKIZUNA KALITATEZKOA DELA AITORTU DIGUTE"

azken batean, batzuk zein besteak, dantzarien, grabatzaileen eta ekoizleen lanak egin dituzte".

Nolanahi ere oso pozik agertu dira lortutako emaitzarekin, "are gehiago ikusita zein baldintzetan egin dugun, hots, bideo grabazio lanetan geu kamera soil batekin aritu garela eta guztia bizpahiru egunetan. Ikusi duten askok aitortu digute ikuskizun polita eta kalitatezkoa eskaini dugula".

Datorren ikasturteari begira, itxaropentsu agertu dira, pentsatuz eskolak ateak egoera normalizatu batean ireki ahal izango dituztela. Berriz ere tangoa, salsa, funky, hip-hop edo eta bachata dantza estiloak eta gorputz mugimenduak landu nahi dituzte, askoren gozamenarako izango diren ikuskizunak eskaintzen jarraitzeko.


Bideo-sorta ederra



Joseba eta Bakartxoren tango emanaldia, akademian bertan. AIURRI



Marta Oteiza eta Ibane Amigot Unanibiko zubian hip-hop eta afrohouse estiloak dantzatzeko. AIURRI



Paula Arbiol eta Ana Marquez. Eskolako ikasle gazteek ere etxean egin eta grabatu zituzten dantza saioak. AIURRI



Artista taldea Familia Lagunak ekimeneko kideekin batera. Eskuinean, zutik, Joakin Larretan artelana grafiti bilakatu duen Mikel Herrero. AIURRI

Kulturartekotasuna indartzeko artelanak

Andoaingo Joakin Larretan ikusgai dagoen muralaren atzean kulturartekotasuna zabaltzea helburu duen egitasmoa dago. Bost artelan landu zituzten beste hainbeste artistek, eta horien artean babes handiena jaso duen proposamena mural bilakatu da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Andoaingo Ongi Etorri Eskolara ekimenak eta Udaleko Gizarte Zerbizuen sailak kulturartekotasuna sustatzeko "Lamiak eta Lloronak" egitasmoa abian jarri

zuten, ekainean. Herriko artista ezberdinei artelan bana egitea eskatu zieten, eta hainbat egunez ikusgai izan ziren zinema karteldegia iragartzeko baliatzen diren kristalezko paneletan. Eki-

menean parte hartu zuten artistak hauexek izan ziren: Ainhoa Marquez, Eduardo Arreseygor, Olaia Zapiain, Itziar Gutierrez, Iñaki Gozalo *Wentxi* eta Juanan Lazkano. Bitartean, artelan ho-

rietako bat mural batean txertatzeko bozketa abiarazi zen. Udalak aurreko astean eman zuen bozketaren emaitzaren berri. 124 parte-hartzaile izan dira, denera. Horietatik, 116ek QR kodigoaren bitartez bozkatu dute, eta zortzik paper bidez. Zozketaren bi irabazleak Kiara Espinoza eta Omar Osorio izan dira, eta uztailaren 31ra arte edukiko dute 150 euroko erosketa bono bana gastatzeko tartea.

Bozketa horren arabera, babes handiena jaso duen artelana Olaia Zapiainen izan da. "El duende" izeneko artelana da, eta horixe izan da Mikel Herro grafitigileak Joakin Larreta kalean margotu duena.



"El duende" (Claudia Peraza), Olaia Zapiain Lizarralde.

"El duende" Olaia Zapiainen lana

Ongi Etorri Eskolara egitasmoaren parte hartzaileetakoa izan zen Olaia Zapiain ilustratzailea, eta berea izan da lan guztien artean nabarmendu dutena. "El Duende de Honduras" izena ipini zion lanari, Claudia Perazak inspiratuta. Obra hori, aurrerantzean, mural bilakatu da. Mikel Herrero grafitigilearen ardura izan da, Joakin Larreta kalean ikusgai dagoena. Olaia Zapiainen lan gehiago Aiurri hamaboskarian ikus daitezke. Berea baita erreportajea osatzeko ilustrazioa.

Herrigunean zehar ikusgai izan diren beste bost artelanak




"Maritxu Teilatuko" (Iñaki Otamendi), Eduardo Arreseygor.




"Pacheco" (Susan Caman), Ainhoa Marquez.



"Coumba ban" (Faty Thiam), Itziar Gutierrez.



"Baba Achur" (Monssef Youssef), Juanan Lazkano.



"Cascada Bigar" (Maria Panici), Iñaki Gonzalez Erro "Wentxi".

Leiho berriak ipini dituzte

Duela hilabete eskas Aiurri astekaritik salatu zenez, ezezagun batzuk txikizioa egin zuten Manttaleko aterpean. Leihoak txikitzeaz gain, hainbat seinale hautsita agertu ziren. Jarrera erabat deitoragarriak. Aiurrira helarazitako argazkietan ikus daitekeenez, aterpean kristal berriak ipini dituzte. Babesleku egokia da mendizaleentzat.



Auzolana eta elkarlana

Urnietako mendi publikoetara ganadua eraman nahi duten ganaduzaleek Adarra-Usabelartzako elkarteko kide izan behar dute. Kide horiek, haien artean auzolanean jarduten dute, eta era berean, Udalarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzen dira zaintza eta konponketa lanak eginez. Aldundiak eta Udalak ekarpen ekonomikoa egiten dute.



Eskertza eta agurra

Egape ikastolako Maite Barandiaran irakasleak erretiroa hartu du. Ekainaren 30ean agurtzeko ekitaldia antolatu zioten ikastolan bertan: "Eskerrak eman genizkion urte hauetan guztietan ikastolaren alde egin duen guztiagatik. Hitz ederrak izan zituen berak guretzat, ahaztezinak eta hunkigarriak. Ikastola beti egongo da Maiterekin zorretan. Disfrutatu Maite!".



Agenda 2030 jomugan

Gaur arte indarrean izan den Eskolako Agenda 21 ordezkatuz, Eskolako Agenda 2030 abian jarriko da. Agenda berriak Garapen Iraunkorra ziurtatzeko 17 helburu ditu. Urnietan datorren ikasturtean lehorreko ekosistemari helduko diote. Eta, zehazki, basoan oinarrituko da lanketa. Ikasleek aurten egindako lana udazkenean aurkeztea espero du Udalak.



Hainbat zerbitzu berrezarri dituzte Jubilatuen egoitzan

Ile-apaindegia edota masajista zerbitzuak martxan daude berriro, aldeaz aurretik eskatutako hitzorduekin

Erredakzioa URNIETA

Adinekoei begira zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira Urnietako Jubilatuen egoitzan. Aurretik hitzordua hartu beharko da, normaltasun berrian, ileapaindegia edota masaje zerbitzuaz

baliatzeko. Ile-apainketarako honako telefono zenbakira deitu behar da: 610 623 242 (Raquel). Masaje zerbitzurako, berriz: 610 641 157 (Larraitx). Pedikura zerbitzua, ordea, datorren irailaren 7an berrabiatuko da.

Berrabiatze mailakatua hurrengo hilabeteetan

Zerbitzu ugari eskaintzen da Jubilatuen egoitzan, eta berrabiatzea mailakatua izango da. Hauze da aurrikuspina:

- Abuztua: Oporraldia dela eta, egoitza abuztuaren 15etik 31ra itxita egongo da.
- Iraila: Osasun bideetako irteera irailaren 10ean izango da, 09:30ean abiatuta.
- Urria: Memoria, euskara, joskintza eta zumba tailerrak urrian abiatuko dira.



Urnietako
udala



Sabina Arruarte, Anselmo Unanue, Xabier Larretxea eta Benantzio Laskibar Urnietako Egape ikastolan bertan sortzaileei egin zieten omenaldi-ekitaldian. Uztailaren 4an zendu zen Benantzio, 84 urte zituela. AIURRI

Benantzio Laskibar gogoan

Urnietako Egape ikastolak kide sortzaileetako bat galdu du, berriki. Uztailaren 4an hil zen Bilbon, 84 urte zituela. Pakita Lizarribar urnietarrarekin ezkondu, astelehen arratsaldean Santutxuko elizan eskaini zioten azken agurra

HEMEROTEKA

Joxeba Lizeaga / URNIETA

Benantzio Laskibar 1935eko azaroaren 22an jaio zen Zumaian. Lau anaia-arrebetatik, bigarrena. Apaiz egindakoan Urnieta izan zen bere destinoa. Bertan egin zituen 9 urte, eta ezinbestekoa izan zen bere lana Egape ikastolaren sorreran.

Sotana zintzilikatu eta Pakita Lizarribar urnietarrarekin ezkondu zenetik Bilboko Santutxu auzoan bizi zen. Aiurri kon-tatu zizkion bere bizipenak, 2017ko apirilean.

Nolakoa zen zure haurtzaroko Zumaia?

Tren geltokiaren auzoko kale-baserri batean jaio nintzen, eta auzo hartan giro euskalduna bazen ere, Zumaia kalean erdal giroa zen nagusi. Kanean euskaraz egiteko beldurraren beldurrez.

Eta bertako eskolaz zein oroitzapen dituzu?

Txikitan monjetan ibili nintzen, dena erdaraz zen. Ez nuen tutik ere ulertzen. Han ikasi nuen katoia irakurtzen buruz, zer esaten nuen jakin gabe. Goizetan eskolara bidean, Guardia Zibilaren kuarteletik pasatzerakoan haien “Cara al sol” kantatzeko orduarekin kointziditzen zutenan guk ere kantatu behar izaten genuen, kanean geldituta.

Noiz erabaki zenuen apaiz izan behar zenuela?

Bagenuen osaba bat apaiza zena, “osaba obispoa” deitzen genion.

"EUSKAL GIROA ZABALTZEKO PREMIA IKUSI ZEN URNIETAN, GARAI HARTAN"

Zumaia Artadi eta Oikia auzoetako erretorea zen. Agian, haren eraginez, edo baliteke misiolari izateko burutazioak ere izaten nintuelako. Hori ulertzeko garaiko giroan jarri behar da.

Eta non hasi zenituen apaizgintza-ko ikasketak?

Saturrararen hasi nintzen, eta han egin nituen 3 urte. Ondoren, Donostiako seminarioa inauguratu zuten eta bertan egin nituen beste 7 urte.

Zein izan zen Benantzio apaizaren lehenengo destinoa?

Urnietan. 26 urterekin. Ordurako bi apaiz zeuden bertan, Dionisio Telleria parrokoa, eta Jose Inazio Zugasti. Sakristiako ate aurrean zegoen Maria enea etxean Jose Inazio eta biok bizi ginen, parrokoa berriz, gaur ere erretore-etxea bezala ezagutzen denean. Derri-gorrezkoa zen neskamea eduki-

tzea, eta aurrena bana jarri baziguten ere, berehala biontzako bakarra izatera pasa ginen.

Nolako Urnieta aurkitu zenuen?

Baserri girokoa, eta Zumaia baino euskaldunagoa, herrigunea bera oso txikia zen, dena baserria zen. Ondoren, Urraka auzoa nola eraiki zuten ezagutu nuen, Arantzibia ingurua ere bai.

Zein izaten zen zuen lana garai haietan?

Udaberrian baserriz-baserri joaten ginen: Soroak, animaliak, etxeak, ura..., dena bedainkatzen genuen. Askotan monagillo batekin joaten ginen. Herriko baserriak hiru zatitan banatuta geneuzkan, hiru apaizon artean. Gogoan dut oilaskoak eta abar ematen zizkigutela. Nire Lambreta motoarekin ibiltzen nintzen. Baina nire kuttunak gaixoak ziren, eta haiei bisitaldia egiten asko ibilitakoa naiz. Tarteka ospitalera joaten banintzen ere orduan, ia gaixo denak etxean egoten ziren. Noiz edo noiz meza ere ematen nien logelan bertan. Orduan apaizak sotanarekin ibiltzen ginen baina nik laister utzi nuen sotana, oraindik etxean badaukat ere. Inauterietarako eskatzen didate.

Zenbat meza izaten ziren igandetan?

Goizeko 06:30ean aurrenekoa, 06:00tan hasten ginen konfesatzen, 08:00tan, 10:00etan eta abar. Eguneroko mezak berriz, bi: Bat parrokiaren eta bestea mojan.

Hiletak goizean egiten ziren garaia ezagutu al zenuen?

Bai. Hamaiketan izaten zen hileta eta ondoren hamaiketako edo bazkaria. Gero arratsaldera pasa eta guzti hori galdu zen.

Gaia aldatuz, aipatuko al zenizkiguke Egape ikastolaren sorreran izan zenituen bizipenak?

Euskal giroa zabaltzeko premia ikusi zen herrian, batez ere, erdaldun multzo handi bat etorri zenetik. Hasierako bileretan parte hartzen zutenak herrigunean bizi zirenak ziren. Baserriko jendea ez zen arduratzen, ez zuten beharrik ikusten, aldiz, herrian bizi zirenak horren beharra sentitu egiten zuten. Bertako jendea ere erdaraz ari zela ikusteak sortu zuen ondoreza. Horrela biltzen hasi ginen: Maria Arizmendi, Anselmo Unanue, Sabina Arruarte, Manuel Igerategi, Xabier Larretxea eta beste hainbat. Ordurako inguruan ikastola batzuk martxan ziren eta Urnietak ere berea behar zuela erabaki genuen.

Lekua? Has gintezkeela sakristian, eta ondoren “Zentruan” moldatuko ginela. Irakasleak nondik ekarri?

Eta ikasleak? Erantzun zaila mila galdera. Gauza da, nola edo ala martxan jartzeko modua egin genuela.

Badirudi energia handiko taldea osatu zenuela.

Bereziki indar handia zuten Xabier Larretxeak eta Sabina Arruarteak, haiek nolabait guztien animoa goian mantentzen zuten. Lokala lortzeaz arduratu nintzen ni. Parrokoak gauza horietaz ez baitzuen ezer jakin nahi izan.

Eta lortu zenuten ikastola martxan jartzea.

Hasieran legeztatu gabe izanik ere, lortu genuen abiatzea. Gehiena harritzen ninduen gurasoek gurekiko zuten konfidantza zen. Umeak gure esku nola uzten zituzten, ezer egon gabe, inongo etorkizunik gabe. Guk ere ez baikenuen argi proiektuak etorkizunik izango ote zuten, ala ez. **Eta halako batean sotana betirako erantzi eta Pakita Lizarribar urnietarrarekin ezkontzeko ordua iritsi zitzaizun.**

1971n izan zen, Bilbon. Tasio Erkizia gure lagunaren etxeko sukaldean ezkondu ginen. Esanda genuen zein elizatan ezkonduko ginen, eta argazkilariak eta abar bertaratu ziren. Alferrik. Parrokiko apaiza lotuta baikenuen, ezkontza etxean egiteko. Zeresan handia eman baitzuen garai hartan gure harremanak. **Nolako jarrera erakutsi zizuten urnietarrek?**

“Ume mimatua” izatetik “deabru hutsa” izatera pasa nintzen Urnietan. Tasio ezagutzen genuen, eta haren bitartez etorri ginen Bilbora.

Zein izan da zure lanbidea?

Santurtzin portuan hasi nintzen zama-keta lanetan. Gogorra izan zen, deitzen joaten ziren zerrenda eskuetan, eta sarritan han geratzen ginen lanik gabe hurrengo barkuaren zain. Gero, pintura fabrika batean aritu nintzen, eta ondoren, jubilatuta bitartean, Formica Espagnol. **Santutxuko Karmelo ikastolaren sorreran ere lanean aritutakoa zara.** Bai, adreiloak jartzen eta denetik. Zortzi ordu lan egin ondoren, beste lau ordu bertan ematen nituen lanean.

* Oharra: 2017ko apirilean elkarrizketa hura www.aiurri.eus gunean aurki daiteke, osorik.

Urteurreneko txapelketa azken txanpan sartu da

ERREMONTEA Ligaxkako partidak jokatu ostean, txapela nork jantzi erabakitzeke bi jardunaldi besterik ez dira falta: finalaurrekoak eta finala. Ansa urnietarrak finalera sailkatzeke aukerak baliatu nahi ditu, asteburu honetan



Imanol Ansa urnietarra bigarren jardunaldian, atzelarien jokoari begira. UTS

Mikel Arberas HERNANI

Hirugarren eta azken jardunaldia jokatu zen Galarretan. Ez zen aldaketarik egon sailkapenean, beraz, Juanenea eta Endika lehen finalistak bilakatu dira, eta Goikoetxea V-Barrenetxea IV bikotea txapelketatik kanpo geratu da. Ansa II eta Larrañaga finalerdietara igaro dira bigarren sailkatu gisa; Urriza eta Zubiri hirugarren

sailkatu gisa igaro dira finalerdietara.

Urriza-Zubirik eta Ansa II-Larrañagak partiduko helburuak ondo bete zituzten, eta biak finalerdietara igaro dira. Lau pilotariek partida berdindua, zirrargarria eta maila handikoa jokatu zuten. Bikote urdinak irabazi zuen (32-35).

Partida bikaina jokatu zuten, berdindua eta oso teknikoa.

Hasiera batean Urriza-Zubiri bikoteak irabaziko zuela zirudien arren, Ansak eta Larrañagak Urrizaren amaierako hutsegiteak baliatu zituzten partidaren aurre hartzeko. Norgehiagokaren hasieran Larrañaga nabarmendu zen, baina amaieraldean Urrizak hartu zion erreleboa. Gorridun bikotea 29ra iritxi zenean finalaurrekoetarako txartela ziurtatu zuen, horrek erritmoa la-

saitzea eragin zuen, aurkarien onurarako.

Goikoetxeak eta Barrenetxeak bigarren partida jada kanporatuta hasi zuten, lehen partiduko bikoteak finalerdietara igarotzea lortu baitzuen. Hala eta guztiz ere, maila handia erakutsi zuten eta gutxiengoagatik irabazi zuten (35-34). Goikoetxeak txapelketako partidarik hobereena jokatu zuen.

Esan beharra dago, partida oso berdindua izan zela eta edonork irabaz dezakeela. Bigarren partidua hau, aldiz, ikusgarriagoa eta biziagoa izan zen, defentsan akats gutxiago egin zituzten. Hasiera batean bikote urdina gailendu zen Endikaren sarea baliatuz; baina partidak aurrera egin ahala, Goikoetxea-Barrenetxea bikotea aurkariak menperatzen hasi zen. Txapelketako partida hoberenetakoa jokatu zuten arren, ez zen nahikoa izan finalaurrekoetara igarotzeko.

50. URTEURRENEKO TXAPELKETA

3. jardunaldia. 2020/07/04

Urriza-Zubiri	32
Ansa II-Larrañaga	35
Goikoetxea V-Barrenetxea IV	35
Juanenea-Endika	34

Sailkapena:

1. Juanenea-Endika	8
2. Ansa II-Larrañaga	5
3. Urriza-Zubiri	4
4. Goikoetxea V-Barrenetxea IV	1

Finalaurrea:

Uztailak 11, larunbata:

Urriza-Zubiri.

Ansa II-Larrañaga.

Finala:

Uztailak 18, larunbata.

Partidak zuzenean ikusi nahi?

Dohainik, Aiurri astekariaren eskutik.

Emaila: urnieta@aiurri.eus.



Larrañaga, Ansaren bikotea. UTS

Ansa finalean sartzeko bidean da

Txapelketa zirrargarria ikusten ari gara azken asteetan, izan ere, edonork irabaz dezake Galarretako 50. Urteurrena txapelketa.

Juaneneak eta Endiak jada finalerako txartela lortu dute, aurkariak nabarmenki gailenduta. Hala ere, indartsu datoz Ansa II-Larrañaga eta Urriza-Zubiri bikoteak. Urnietarrak ikusmira handia sortu du azken partidetan, maila izugarria erakutsi baitu eta onenen artean lehiatu dezakeela argi utzi du.

Bestalde, Goikoetxeak ez du zorte berdina eduki eta ligaxkatik kanporatua izan da hiru partidetatik bakarira irabazi ostean.

Larunbatean erabakiko da finalerako bigarren txartela nork lortuko duen.

ZUZENEAN IKUSI NAHI?

Galarretara joateko aukera eskaintzen dizu Aiurrik. Emaila idatzi urnieta@aiurri.eus helbidera.

ZUZENEAN

50
ERREMONTE TXAPELKETA
-FINALAURREKOA-

UZTAILA 11 Larunbata 15:15

ETXARRI BARRENETXEA IV

VS

GOIKOETXEA V ENDIKA

ANSA II LARRAÑAGA

VS

URRIZA ZUBIRI

JUANENEA LABAKA

VS

SEGUROLA AIZPURU III



NIRE USTEZ

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Nire butakatxotik

Bazkalostea. Ordu hauetan etxeko sofán eserita, edo erdi etzanda behar nuen Tourreko etaparen bat ikusten. Batzuk hondartza maite dute, besteek kafea tabernako terrazan. Nik etapa osoak ikus ditzaket telebistan, ahalegin oro bi zereginetara mugatuz: sabeleko orroak apaldu, eta behar fisiologikoak ase. Baina aurtén uztailéan ez dago Tourrik. Eta ekainéan Dauphiné-rik ere ez. Ezta Suitzako Itzulirik ere. Giroa, Euskal Herriko itzulia eta Romandiako Tourra ere haizeak eraman zituen. Beno, haizeak, edo koronabirusak eragindako pandemiak. Hiru hilabete luze dagoeneko bazkalosteetan txirringuluriarik ikusi gabe. Eskerrak Michael Portillo agertu den Viajar telebista katean...

Nire butakatxotik Egunkaria eta Berria kazetetako iritzi artikuluen izena zen. Kirol emankizun garrantzitsuenen inguruko iruzkina egiten zuena. Juan Luis Zabala idazle azkoitiarrak egiten zituenak oroitzen ditut gustura. Hura ere arratsaldeak nola pasa ez dakiela imaginatzen dut orain, ziklismorik gabe pantailan. Nire butakatxotik Burgosko Itzulia, denboraldia hasteko 18 egun bakarrik falta direla jabetu naiz. Ezer ez! Badator sofa kirola... Eta gero sekulako betekada. Egúnero probaren bat telebistan, eta zenbait egúnetan bi. Eta abuztu bukaeran Tourra! Hiru hilabetetan zortzikoa ikusteko aukera! Eta asko hondartzara joango dira...

Pasa den astéan, ekaineko azken egúnean, nire kazetari jarduneko egunik garrantzitsuenetakoa bizitzeko aukera izan nuen. Urte batzuk geratzen zaizkit, kontalari lanean, oraindik (6-8 bat urte, espero), baina akaso ez dut halako lorpenik berriro kontatzeko aukerarik izango. Baskoniaren Liga titulúaz ari naiz, noski. Bai, nik ere ez nuen txakur txikirik ematen arabarren alde. Eta zuetako inork ere ez. Pandemiari

zukua atera zion. Finala partida bakarrera zela probestu zuen, eta bi asteko norgehiagoka karga handian beste guztiak baino hobeto moldatu zen Dusko Ivanovicen taldea. 10 urte geroago, Montenegrokoa aulkian dela itzuli da Olinpora Baskonia, hilda zegoen aldagela berpiztu ostéan.

Kerejetak bere azken bala erre zuen abenduan, Perasovic kargugabetu eta erreskaterako Dusko konbentzitu, eta orain Duskok bizpahiru urterako lasaitasuna bueltatu dio Kerejeta eta bere zuzendaritzari. Ze, gauzak diren bezala, ACB Ligan eta Euroligan dauden talde aberatsen aurrean, Baskoniak zer irabazi asko eta galtzeko gutxi dauka. Orain eta hurrengo hamarkadan. Titulu bat, beraz, sekulako lorpena. Duskorekin lortu zuen 2010eko Liga, Duskorekin bukatu berri dena. Euskaldun unibertsala izendatzea bakarrik falta zaio entrenatzaileari.

2010eko titulua Buesa Arenako harmailéan bizi izan nuen. Marcelo Huertas-ek buruko ilea kendu zuenean, Splitter ile horiak soinetik Brasilgo bandera kentzen ez zuenean, San Emeterioren hiruko jokaldi hura, eta autobusean, taldearen ospakizunean harrapatu zuen mozkorra... Jakina da, dagoeneko, Baskonia dela nire talde kuttunenetakoa, kuttunena ez bada. Baina baditut nire kontradikzioak talde horrekin, ez pentsa.

Baskoniak azken 10 urtetan egin duen basamortuko zeharkaldian asko izan gara kritiko taldeak eraman duen bidearekin, hartu dituen erabakiekin ez ados mintzatu garenak. Noski, taldea ez da geldirik geratu, eta zale eta jendartearen begietara kritikak zilegi edo egokiak ez direla ulertarazten saiatu da bere bitartekoekin, eurentzat mesedegarria den iritzi korrónte ofiziala finkatu nahian. Kritikak, edo diskrepantzia, normalean, ez

baitira ongi etorriak izaten kirol talde profesionalean. Baskonian ere ez, noski.

Badakizue, beraz: irin guztiak ez dira zuri Baskonian. Taldea kritikatzéak kazetari zenbaiten adierazpen askatasuna mugatu izana ekarri du. Mugatu, espresatu nahi zuena moldatu behar izan duelako, edo bere iritzia publiko ez egitéra behartua sentitu delako. Pentsatzen zuena publikoki esan izan balu agian bere jardun profesionala kaltetua izan zitekeelako. Garbi esanda, isilik geratu behar izan duela, edo mutu. Kirol kazetaritzak halako ertz ezezagunak ditu, irakurle maite, eta zehar kalte horiek gehiago sakóndu ez daitezen, txoko honetan zuei arrasto gehiago ez ematea, onena.

Kirol taldeetako prentsako kideek han eta hemen zer esan eta idazten den zaintzen dute zorrotz egúnero. Dena dute kontrolpean. Prentsa arduradunak iritsi zirenetik elkarrizketa pertsonalak bukatu ziren komunikabideentzat, agerraldi publikoak ere tantaka, eta medio zenbaitentzat pribilegioak, eta besteentzat lehortea. Ondo edo gaizki portatzen bazara, bata edo bestea. Baskoniaren kasuan, taldearen martxa jarraitzen duten kazetariék pasatzen dituzten miseriekin gogoratzen naiz egun hauetan, euren egúneroko jarduna amesgaiztoa bilakatzen delako sarri. Kurioso da talde baten jardunari loreak botatzen dizkiozunean munduko kazetari onenaren pare sentiarazten zaituztela klub horretan. Hori bai, hitz itsusiak botatzen dituzunean zerrenda beltzean sartuko zaituzte berehala. Kirol talde profesionalean prentsako taldeak nahi duen mezua bakarrik zabaltzen da. Hortik aurrera iluntasuna dago.

Baskoniak euskararekiko daukan jarrerarekin ere kritiko izateko baliatu nahi nuke leiho hau. Hutsaren hurrengo baita. Txio bakanen bat, oso noizbehinka, eta idazten duten hori ere nahiko

euskara kaskarrean. Egurtu dute Baskonia sareetan, baina ez dute ezer egiten, euskara ez baita lehentasuna eurentzat. Eta hala ere Baskonia zaletasuna bizirik mantentzen da nigan. Sentimenduak, kirolarien talentua bezala, iraun egiten baitu, trabak traba.

Kazetaritzak, zorionez, mila aurpegi ezberdin ditu, eta hainbat kirolarirekin filtrorik gabe mintza zaitezke oraindik lasai-lasai kalean, prentsa arduradunen hesia gáinditzeko beharrik gabe. Bada Urnietan mutiko bat, distira berezikoa. 1.77 neurtuta ere eskasa ematen duena. Meharra, hanka mehea, herriko zaharrenék esango luketen bezala. Larunbatean erremonteko binakako txapelketako finala jokatzeko finalerdia dauka, Galarretan. Urriza handiaren aurka. Astelehenean kalean topatu nuen. Kontu kontari. “Zubiri Urrizaren bikotea baino gehiago gara (bera eta Larrañaga bikotea), eta Urrizari bere jokoa egin ez dezan saiatu behar dugu. Finala jokatzeko aukera daukagu”, bota zidan, tinko, ziurtasunez. Pasioa transmititzen du mutilak, ilusioa, gauza handiren bat egiteko. Imanol Ansa da.

Mattin Mujika zena izan genuen ahotan. Urnietako azken txapeldun handia erremontéan. Abenduan 30 urte bete ziren, binakakoa irabazi zuela. Lau urte geroago, minbizi madarikatuak eraman zuen betirako, gazte-gaztea zela. Imanolek ez zuen Mattin Mujika ezagutu. 1995ean jaioa da, Mattin zendu eta bi urte geroago, baina haren izena sarri entzuten du. Bere osaba eta erremontista zaleen ahotik, ziurrenik. 24 urterekin final handi bat jokatzéa sekulakoa litzateke. Imanol, Mattin zena bezala, txikia baita. Txikia bai, baino eskasa ez. Goitzenek ez du, momentuz, Ansa II.-k. Mattin zenari txintxoá esaten omen zioten. Dohain horretan Mattinen antza du Imanolek.



Nora Mendizabal. AIURRI

Plazandreak pilota saioko lehen jardunaldia

Nora Mendizabalek Plazandreak telebista saioko lehen jardunaldia jokatu zuen

Mikel Arberas ANDOAIN

Olatz Arrizabalagaren kaiolako bi puntuei esker, Reyes Azkoitiaren taldea izan da Plazandreak Laboral Kutxa Txapelketako lehen jardunaldiko garailea. Gernikarrak igandéan Irungo frontoian bertan jokatutako Binakako Emakume Master Cup finaleko arantza atera ahal izan zuen, binaka; izan ere, Olatz Ruiz de Larramendi gailendu zuen bi partidetan maila bikaina erakutsiaz. 12-3 lehen partidán eta 12-4 bigarrenéan. Gernikakoa eta Eulatekoa izan ziren Reyes Azkoitia eta Erlantz Garciak lehiaketa zabaltzeko aukuratutako pilotariak; bizkaitarrak ez zion aukerarik eman nafarriari. Aurreko koadroetan maila eta teknika handiagóa erakutsi zuen gernikarrak.

Binakakoan oso bestelakoak izan ziren gauzak eta Aldaregia-Agírek euren taldearentzat lehen puntua eskuratu dute, Etxebeste-Mendizabali 12-5 gailenduta. Lehen partidak andoaindarrari zapore gazi-gózoa sorrarazi zion arren, maila erakutsi du, eta datozen partidetan beharrezkoak dituen puntuak lortzen saiatuko da. Plazandreak saioa telebistan ikusgai egónen da ostegúnetan, gaueko 22:30ean hasita ETB1 katean.

Datorren denboraldia antolatzeke lanetan

IGERIKETA Zenbait kirol arlotan bezalaxe, etorkizun ziurgabeari aurre egin beharko diote Buruntzaldea Igeriketa Taldeko kideek. Egun, antolakuntza lanetan ari dira eta datorren denboraldia "normaltasunez" ekitea espero dute



Borja Apeztegia Buruntzaldea Igeriketa Taldeko arduraduna. BURUNTZALDEAIKT

Mikel Arberas ANDOAIN

Eskualdean dagoen igeriketa talderik handienetakoa da Buruntzaldea IKT. Zenbat kide biltzen ditu?

Eskualdean igeriketa talderik handiena Buruntzaldea IKT da. Usurbilen igeriketa talde bat zegoen, baina arazo ezberdinen ondorioz desagertu egin zen; saiatu ginen bertako igeriketa taldearen kudeaketa eramaten, baina ez genuen aurrerapausorik egin. Hernanin ere igeriketa talde bat dago, baina txikiagoa da, 40 lagun inguru biltzen ditu. Buruntzaldea Igeriketa Taldeak, berriz, 140 igerilari ditu. Hortaz, eskualdeko talderik handiena gara, bai.

Noiztik ari zara lanean Buruntzaldea igeriketa taldeko arduradun gisa?

Buruntza Igeriketa Taldean 2011-2012 denboraldian hasi nintzen. Hasiera batean entrenatzaile lanak egiten nituen soilik; garai hartan Buruntzaldeako zenbait entrenatzailek taldea utzi zuten eta nik neuk ere, aldaketa bat behar nuen

Lasartera gerturatu nintzen. Urte haietan, taldea sendotzen eta batzen saiatu ginen, irteerak eginez edota bestelako entrenamenduak sustatuz. Esan beharra dago, entrenatzaile gisa hasi nintzenean Buruntzaldea Igeriketa Taldea soilik Lasarten zegoela.

2012-13 denboraldian mahai-gaineratu nuen Andoainen erlan egin behar genuela, azken finean, jatorrian bi herriak talde berean zeuden. Arrazoi jakin batzuegatik banatu zen taldea berriro ere elkartu behar zela pentsatu nuen. Gauzak horrela, denboraldi horretan bertan Andoaingo igerilariarekin lanean hasi ginen.

Urte guzti hauetan entrenatzaile lanetan aritu naizen arren, urtetik urtera ardura gehiago edukitzen hasi nintzen. Taldea sendotzen eta indartzen saiatu naiz urte guzti hauetan.

Igerilariak emaitza onak lortu zituzten pasa den denboraldian...

2012tik aurrera urtero egon dira taldeko igerilariak Espainiako

txapelketetan, eta 2013an lehen domina irabazi genuenetik emaitza oso onak lortu ditugu. Horrela, emaitzei dagokionez, Espainiako txapelketan, zenbait frogatan onenen artean aritzeaz gain, 2017-2018 denboraldian bi taldekideek naiozarteko mailara jauzi egin zuten, besteak beste, Ainhoa Martinek eta Nahia Zudairek. Lehena, Espainiako selekzioarekin Erroman lehia-tzen aritu zen; bigarrena, igeriketa egokitan maila oso altua erakusten ari da, eta Europako txapelketetan eta nazioarteko beste zenbaitetan parte hartu du. Tokyoko paralinpiar jokotan parte hartzeko aukera izan zezakeen aurtan, baina bizi izan dugun egoeraren ondorioz ber-

"GURASO ZEIN TALDEKIDEEKIN KOMUNIKAZIO ZUZENA MANTENDUKO DUGU MEMENTO ORO"

tan behera geratu da, eta jokoak 2021era luzatu dira.

Esanak esan, aurreko denboraldian Ainhoa eta Leirek Terrasan Espainiako Absolutuan hainbat domina irabazi eta Euskadin errekorrak lortu zituzten. Egia esan, Estatu mailan dauden taldeen tamainarekin alderatuta txikiak gara; txikitasun horretan, aldiz, maila oso altua erakusten ari gara.

Datorren ez-ohiko denboraldia nola antolatzen ari zarete?

Geuk egin dezakegunaren baitan, datorren denboraldia normaltasun teoriko baten barruan antolatzen ari gara. Kontaktua mantentzen dugu Lasarteko eta Andoaingo kirol zerbitzuekin eta, beraz, badakigu egoera zein den. Ikusi beharra dago egoera nola garatzen den, eta horren arabera egokitzapenak egin beharko dira.

Taldekideek zalantzak edo kezak azaldu dizkizue?

Inork ez digu gaiarekiko galdetarik egin, baina nik esango nuke gizarte bezala guztiok ditugula zalantzak eta kezak. Egungo egoera ikusita, oso zaila da bi hilabeteetara zer gertatuko den jakitea. Hortaz, guztiok ditugun zalantza horiekin egin dezakegun bakarra normaltasun teoriko batean pentsatzea da. Edozer gauza jazotzen dela, guraso zein taldekideekin komunikazio zuzena mantenduko dugu.

Zein neurri hartuko dituzue higie-ne eta segurtasuna bermatzeko?

Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren bitartez jasotzen ditugu Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen baldintzak eta betebeharrak. Udal instalazioetan lan egiten dugunez, kirol zerbitzuen arautegia bete beharko dugu. Horrez gain, protokoloak sortuko direla pentsatzen dut igerilekuko instalazioei dagokionez.

Horrekin guztiarekin, taldean geuk hartutako segurtasun neurriak ezarriko ditugu. Esaterako, norberaren materiala erabiliko da; igerilarien artean ere gutxieneko tartea errespetatu beharko da, horretarako, kaleetako kokapen sistema ezberdina baliatuko dugu. Gutxieneko neurri horiek biltzen dituen protokolo bat egingo dugu.

Gehitu beharra daukat, igerilekua bera nahiko leku desinfektatua dela, eta egia esan, beste edozein kirol instalazioetan baino garbiketarako joera

Izena emateko epea hilaren 19ra arte

Buruntzaldea Igeriketa Taldekoak 2020/2021 denboraldia antolatzen hasi dira, eta zenbait aldaketa egingo dituzte. Lehenik eta behin, klubetako sarbidea erraztu nahi izan dute, eta bigarrenik, maila handiagoko entrenamenduak eskaini nahi dituzte.

2011 eta 2012. urteetan jaiotako haurrek bi entrenamendu egun edukiko dituzte, 17:00etatik 18:00etara, eta egunak aukeran izango dituzte.

Bestalde, 2009ko haurrek eta 2008ko gazteek astelehen, asteazken eta ostiraletan egingo dituzte entrenamenduak, 18:00 eta 19:15 bitartean; baina nahi duenak 4 edo 5 egunetan entrenatu ahal izango du.

Izena emateko aukera egonen da Buruntzaldeako webbean. Informazio gehiagorako 696 506 632 mugikorraren zenbakira deitu edo info@buruntzaldeaikt.eus posta elektronikoz mezua bidali.

eta ohitura askoz ere handiagoa dagoela. Nire ustez, arazoa aldagelatan egonen da, izan ere, igerilekuetako aforoa aldagelek baldintzatuko dute; hau da, aldagelak erabiliko dituztenen kopuruak baldintzatuko dute uretan zenbat pertsona egongo diren. Andoaingo igerilekuak aldagela asko dituela esan genezake, eta, beraz, jokatzeko aukera handiagoa ematen du. Nik zentzu horretan arrisku gutxiago ikusten dut. Lasarteko igerilekuari dagokionez, berriz, konplexuagoa da. Aldagela bana dute emakumezkoek eta gizonetzkoek, hortaz, iraileko egoerak asko baldintzatu dezake igerilekuko aforoa.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Zinema Kalean

Mr. Link filma. 250 lagun gehienez, prebentzio neurri guztiak hartuta. 22:00 Ondarreta. Euskaraz.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Tailerra

Sukaldaritza tailerra, Gazte Lokalean. Izen-ematea bi modutara egin behar da: 682 025 485 / gaztelokalaandoain@gmail.com. Antolatzailea: Gazte Lokala.

ASTEAZKENA 15

ADUNA Bertso afaria

Aitor Mendiluze gai jartzaile lanetan ikusteko aukera. Kantuan arituko dira Unai Mendizabal eta Eli Pagola. 20:30 Aburuz. 40 euro.



Kale antzerki emanaldiarekin abiatuko da aurtengo zikloa. AIURRI

ANDOAIN Kale Giroan zikloaren hasiera

Aurreko urteetako ildoari jarraipena emanez, Udalak "Kale Giroan" zikloa abiatuko du. Trapu Zaharra konpainiako Santi Ugalde eta Mila Espiga aktoreak igoko dira taula gainera. Hauxe sinopsia: Bidaia-agentzia batek promoziorako stand bat ipini du kalean, bertan bere puntako produktua jendeari agertzeko: "bidaia birtualak bakoitzaren nahierara sortuak" Ohar garrantzitsuak: • 17:30etik aurrera gonbidapenak Basteron eskuragarri. • Segurtasun neurriak: Ezinbestekoa izango da maskara erabiltzea. Uztailak 11, larunbata. 19:30, Ondarreta. Doan, gonbidapenarekin.

LARUNBATA 18

ANDOAIN Dantza

"Errimak bi oinetan" dantza eta bertso ikuskizuna Haatik konpainiaren eskutik. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena behar da. 19:30 Ondarreta.

IGANDEA 19

ANDOAIN Haur antzerkia

"Crusoe" haur ikuskizuna, 6 urtetik gorakoentzat. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena behar da. 19:30 Ondarreta. Euskaraz.

OSTIRALA 24

ANDOAIN Musika

"Biba!" Xabi Bandini Kerobia taldeko kantariaren egitasmo berria. 22:00 Ondarreta.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Nere
Nere Arruti Lopezek
5 urte beteko ditu
uztailaren 10ean.
Muxu!



ANDOAIN

Ur
Etxeko txikiak
4 urte beteko ditu
uztailaren 10ean.
Bikain pasako dugu!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Aiurri bidez.

Erraza da, eta dohainik!

- Webgunea: www.aiurri.eus.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Whasappa: 619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 11 eta igandea 12
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 11 eta igandea 12
TANCO: Idiazabal, 39.
943 550 942. Urnieta.



Maiatzean odol-ematea antolatu zuten Lekaio kultur etxean. AIURRI

Odola emateko hitzordu bikoitza, eskualdean

Uztailaren 14an odola emateko aukera izango dute andoaindarrek, La Salle Berrozpe ikastetxean. Urnietako odol-emaileak, berriz, Lekaio kultur etxera agertzeko deituko dituzte datorren uztailaren 16an

Erredakzioa URNIETA

Odol-emate saio berri bat deitu dute Urnietan, datorren ostegun-nerako. Ohiko odol emaileei zuzenean deituko diete Gipuzkoako Odol Emaileen elkartetik, eta dei horretan adieraziko diete txanda hartzeko zein egunetan eta zein telefono zenbakira deitu behar duten.

Segurtasun neurriak

Odola ematea beharrezko diren segurtasun neurriekin gauzatu-ko da, eta horretarako txandak banatuko dira odola ematera gerturatzen diren pertsonen artean jende pilaketak ekiditeko. Katarroa, mukiak edo eztula bezalako sintomak dituzten pertsonen ez gerturatzea eskatuko zaie.

Konfinamendu garaian, odol-emaileek bikain erantzun diote Andoaindik eta Urnietatik egin-dako deialdiei. Beharrezkoa da odola ematen jarraitzea, eta alde horretatik euskaldunak jokabi-de eredugarria izaten ari dira garai zail hauetan. Datorren astean elkartasunez jokatzeko hitzordu bikoitza dago.



Hitzorduak datorren astean

Uztailak 14, asteartea
18:30-20:30.
La Salle Berrozpe.
ANDOAIN

Uztailak 16, osteguna
Aldez aurreko zitarekin.
Lekaio Kultur Etxea.
URNIETA



Asteazken goizean egin zuten aurkezpen ekitaldia. AIURRI

Udan sagardotegian

Bertsolaritza, musika eta sagardotegia lotzen dituen egitaraua aurkeztu du Gipuzkoako Sagardogileen elkarteak, Bertsozale elkartearekin elkarlanean. Uda honetan sagardoaz eta kulturaz gozatzeko aukera ezin hobea izango da

Erredakzioa ANDOAIN

"Bertsolaritza, musika eta sagardotegia lotzen dituen egitaraua da, elkarlanaren lehen harria, eta Musika Bulegoa elkarteak difusioarekin babestu du ekimena". Sagardozaleen elkarteak horrela iragarri du uda honetarako aurkeztu duen ekitaldi sorta.

Koronabirusak hankaz gora jarri du gizarte bizitza, eta baina kultura eta ekonomia ere. Kultur jarduerak eta sagardotegien eskaintza berrabiarazteko zer hobea elkarrekin aurkeztea baino. Arrazoirik ez baitzaie falta sagardogileei: "Agertoki apartak ditugu sagardotegiak: barrualdeak eta terrazak". Uztailean eta abuztuan bost emanaldi-dastaketa egingo dituzte, eta bertaratzeko alde aurretik egin behar da erreserba bertosarrerak.eus edota sagardoa.eus webguneetan.

UZTAILA

Uztailak 15, asteazkena.

20:30 Aburuza, Aduna. Bertso Afaria: Unai Mendizabal eta Eli Pagola bertsoan; Aitor Mendiluze gai-jartzaile. 40 euro.

Uztailak 24, ostirala.

18:30 Astarbe, Astigarraga. Afari-merienda: Maialen Lujanbio eta Agin Laburu. 25 euro.

Uztailak 27, astelehena.

20:30 Petritegi, Astigarraga. Bertso kata eta afari musikatua: Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia eta Imanol Kamio. 40 euro.

AURTENGOAN SAGARDETEGIEN GEHIENGOAK ATEAK IREKITZEKO ERABAKIA HARTU DU

ABUZTUA

Abuztuak 7, ostirala.

20:30 Saizar, Usurbil. Musika jaialdia eta afaria. 40 euro.

Abuztuak 29, larunbata.

20:30 Ola, Irun. Bertso Afaria: Angel Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze eta Andoni Egaña. 40 euro.

Sagardozaleen elkarteak emandako datuen arabera, "aurtengoan Euskal Herriko sagardotegien %61ak uda sasoiari ateak irekitzeko erabakia hartu du. Natur gune apartak, espazio zabalak, terrazak, menu bereziak (entsalada, arrainak eta oilaskoa parrillan) eta sagardoa botilan eta txotxetik eskaintzen dituzte gure sagardotegiek. Dena, noski, protokolo zorrotz eta zehatza jarraituz, denon osasunaren mesedetan".

Aukera zabala uda honetan

"Egun osoko planak, otorduak edota txangoak proposatzen dizkizuegu. Lagunartean, familian eta bakarka gozatzeko modukoak denak. Helburua, landa eremuaz gozatzeko eta bizirik mantentzen duten euskal ofizio eta familiak ezagutzea da". Sagardoa Route ekimena ez dago turistek begira soilik lanean. Uda honetan bertakoa deskubritzeko aukera aparta dago.

Bodega planak

"Udazkenari begira, elaborazio garai bete-betean bi eskaintza berezi ditugu: sagardogile lanak ezagutzea egun batez elaborazioan parte hartuz; edota Euskal Sagardoa Jatorri Deitura duten upategietan ibilbidea, bisita gidatu mugikorra izanik".

Familia planak

"Leku eta txoko ezkutuenak atera nahi izan ditugu plazara, xarma berezia dutela iritzita. Agorregiko burdinola eta Iturrarango erlauntzetara bisita, adibidez. Beste aukera bikain bat, Larraondoko zerrategia eta Aizpea meategia ezagutzea dira. Urola aldera begira, baperezko trenetan txangoa egiteko aukera dugu Azpeitian. Eta azkenik, ofizioen euskal munduan bizi garenez, gazta egiteko aukera ematen diegu txikienei artzainaren eskutik. Bisita bakoitzaren ondoren, sagardotegian otordua izango du, haurren menua barne".

Plan gastronomikoak

"Sagardo mundua gazta munduarekin, txakolinarekin eta baserritarren azokekin lotu ditugu. Horiek denek sagardotegian izango dute amaiera, bisita, euskal sagardoaren dastatzea eta otorduarekin".

Kirol planak

"Kanoan eta arraunean, Urumean, Kontxan eta Orian. Kirol saio politak egin daitezke lagunartean, bikotean, koadrillan... eta, noski, sagardotegian emango diogu itxiera egun eder honi otordu apartarekin".

Plan kulturalak

Itsasora eta mendira hurbilduko gara ekintza hauekin. Itsasoa eta mendia lotuko ditugu ekintza hauetan. Flyscharen panoramika aparta txalupatik, Igartubeiti Baserri Museoa, Albaola Itsas Kultur Faktoria...".

Asteburu-pasak landa eremuan

"Sagardoa Routek bazkide ditu landetxea, nekazal-etxea edota Xarmadun Hotela duten 8 sagardotegi. Ostatu hartzeko Gipuzkoan zehar ditugu etxeak, eta zure gustuen arabera lagunduko dizugu asteburu-pasa non egin aukeratzeko".

Erreserbak non?

"Sagardoa.eus webgunean aurkituko duzue planak eta otorduak erreserbatzeko tresna. Aukeratu eguna, ordua, pertsona kopurua eta kito, udara antolatuko duzu hala! Gainera, bilaketa errazteko, hainbat filtro ditugu bertan: menuaren arabera (begetarianoa, zeliakoa, arrainak parrillan, garaiko produktuak...), familian joateko (parkeekin, haurrentzako menuekin) edota herriaren arabera ere egin daiteke bilaketa. Sektorearen online erreserbatzeko gunea dugu sagardoa.eus".

Eta sagardoa erosi nahi badut?

"Sagardoa.eus webgunean dugu euskal sagardo sektorearen erreferentziazko denda. 44 sagardo desberdin topatuko dituzue bertan. Eskaria egin eta etxeraino eramango dizugu. Euskal Sagardoa, sagardo ekologikoa, aparduna, murtia... aukera zabala eskaintzen du sektoreak momentu honetan, eta horren erakusleho dugu Sagardoa Routen webgunea".